

# Noaia!!

www.noaia.com




Amaiur izan zen bozkatuena  
igandeko hauteskundeetan



Julian Urkiola erlezaina

“Liztor asiarrak ehun kabi  
edo gehiago suntsitu ditu”

# Auto Guria



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)  
 ☎ 943 363 298 • Faxes: 943 363 862

# I. URRUZOLA AROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,  
 etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE  
 (Errekatxo jatetxearen ondoan)  
 Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

**Herri osoa enteratuko da...  
 Zure publizitatea hemen**



**Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak**

943 360 321 [publizitatea@noa.com](mailto:publizitatea@noa.com) [www.noa.com](http://www.noa.com)

Sarreraren salmenta



## Tantaka taldea Ipar Haizearen Kontra

**aktoreak:  
 Itziar Aienza eta Joseba Apaolaza**



**ABENDUAK 2, ostirala, 21:30h auditorioan**



ANDOAINO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia Info: 943.303.540 [www.andoain.org](http://www.andoain.org)

Albistea iruditan !

## Bi otar aukeran, Sohütako ikastola laguntzeko

**A**urreko urteen moduan, Sohütako ikastola laguntzeko aukera egongo da aurten, eguberrietako otarreak salgai jarri dituzte eta. Eskuratu nahi dituzten herritarrek, izena eman baino ez dute, Txiriboga edota Bordatxora gerturatuta, baita NOAUA!-ko egoitzara telefonoz deituta ere. Zuberoako produktuak dituzten honako bi otarre daude aukeran:

### Ahuski otarrea

Produktuak: ardi gazta (1 kg), eztia (500 gr), ahate gibelarekin eginiko pateaa (200 gr), bizkotxo poltsa bat (200 gr).

Prezioa: 37 euro.



GAZTETXO HAUEK ERE ANIMATU DIRA KANPAINA HONETARA.

### Irati otarrea

Produktuak: ardi gazta (1 kg), ahate gibelarekin eginiko pateaa (200 gr),

bizkotxo poltsa bat (200 gr) eta axoa txahalki xehatua saltsan (750 gr).

Prezioa: 50 euro.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

## Eutsi berrituz

**D**uela aste pare bat oihartzun handia izan zuen prentsan agertu zen agiri batek: "EUTSI BERRITUZ" kolektiboarena hain zuzen ere. Gipuzkoako Elizbarrutiko gotzain Jose Inazio Munillaren jarreraren aurkako gutun bat helarazi zuen. Zera salatzen zuen karta horretan: Pastoral Batzordeko kideekiko "errespetu falta". Eutsi Berrituz-en ustez gotzainak erabilitako metodologia ez da egokia izan datozen bost urtetarako programaketa finkatzeko orduan. Eta horrek eragin duena zera da: lehendik arazoak bagenituen gure gotzainarekin, gatazka hori area-gotzea.

Zer da Eutsi berrituz taldea? Duela bi urte sortu zen eta Gipuzkoako Kristauek (apaiz, erlijioso/a eta laiko) osatzen dute. Orain arte bi gogoeta-otoitz topaketa egin ditu eta biak Ibaetako parrokiari, ni neu animatzaileetako bat nintzelarik: musika jotzea eta irudiak jartzea izan zen nire ardura. Hirugarren topaketa hil honen 26an egingo dugu Arantzazun. Gure herria baketzeko urrats berri bat eman nahi da ekimen honen bidez. Besteak beste, Jonan Fernandez, Baketik Zentroaren Zuzendariak parte hartuko du. Jose Antonio Pagola eta bere lanaren aldeko sinadura bilketa ekintza ere antolatu zuen: 2.700 firmatik gora jaso ziren Gipuzkoan.

Talde honen helburu nagusia da "Elizbarrutiak azken urte hauetan izandako eliz ereduari eusten laguntzea, eta aldi berean, Elizaren berrikuntzaren zerbitzura pausoak ematea".

Kolektiboaren ezadostasunaren arrazoa zera da: bost urtealdiko Pastoral egitaraua egiterakoan martxan jarri den prozesua ez dela izan guztiz demokratikoa; izan ere, Pastoral Kontseiluan dauden zenbait kritikoren ekarpenak ez dira kontutan hartu; Gotzaina, Bikario Nagusia eta beren ideologiakoek aurreratutako tesiak onartuak izan

dira kritikoenak gutxietsiz. Berrito ere, elizbarrutiaren aho-tsa entzuteko aukera izan eta galdu egin gure Gotzainak.

Datozen bost urte hauetan Pastoral Egitaraua gauzatu behar dugun pertsonen artean iritzi, sentsibilitate eta estilo ezberdinak daude. Guztiak ez badira kontutan hartzen, jai dago, berrito ere inposaketa nagusitzen da, eta horrek ebanjelioaren balore funtsezkoenetako bat hausten du: senidetetasuna, anaitasuna. Horrela jokatu, "gotzainak bere elizbarrutiko kideekin sintonia eta komunio hutsune serioa duela erakutsi du, hiru hamarkada baino gehiagotan gertatu ez dena; zatiketa eta konfiantza eza sortu ditu", dio kolektiboak bere agirian.

Kritikak ere izan ditu agertu duen jarreragatik. Batek honela zioen: "Talde horretako partaideek beren akatsak gotzainarengan proiektatzen dituzte... Gotzainak ez du entzuten, beti tronpatzen da, erratzen du... Beraiek, aldiz, beti dute arrazoi... Bidean oztupoak jarri besterik ez dute egiten...".

Anitza den herri honetako iritzi eta jarrera ezberdinak zergatik ez dira kontutan hartzen? Zeren beldur dira? Beldurra da jarrerarik ezkorrenetako bat. Paralizatu egiten zaitu, hegoalak moztu dizkizu, kontserbadore bihurtzen zaitu... Zergatik zenbait egitura arkaiko berritu nahi dituzten ideiak gaitzesten dituzte? Zergatik teologiaren hizkuntza berritzen saiatzen direnak baztertuak daude? Oraitxe ere Bilboko Gotzainak Torres Queiruga teologoari debekatu egin dio hitzaldi bat ematea, nahiz eta gero baïmena eman murrizketa batzuekin. Gure Elizbarrutian ere bat baino gehiago zentsuratuak izan dira. Ebanjelioan askotan entzuten dira honako esaldi hauek: "Ez izan beldurrik... Izan bihotz"... Beldurraren antidotoa elkarrenganako konfiantza da. Honek bai ematen duela kemena, gogoia, adorea. Konfiantza da denon artean lortu nahi dugun komunioaren motorra.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: abenduak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 28.

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66  
943 36 21 78

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiurrenea 8  
943 370 008

**USURBIL AUTOAK**  
TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA

**Ford** **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala  
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

## Amaiur izan zen indar bozkatuena auzo guztietan

**N**ormaltasuna nagusi izan zen Espainiako Gorteetarako hauteskunde egunean. Espainiako Kongresurako nahiz Senaturako bozetan, partehartzea handia izan zen, duela hiru urte baino handiagoa.

Zortzi hautesleku ipini ziren eta zortzietan Amaiur izan zen bozkatuena. Argazkian, hainbat herritar, Udarregi ikastolako hauteslekuan bozka ematen.

Gipuzkoan eman diren emaitzei esker, Xabier Mikel Errekondo usurbildarra Amaiur koalizioko diputatua izango da Madrilgo Kongresuan, datozen lau urteotan.



UDARREGI IKASTOLAKO HAUTESLEKUAN, HAINBAT HERRITAR BOZKA EMATEKO ZAIN.

## Espainiako Gorteetarako hauteskundeak Usurbilen

ALDERDIA	BOZKAK	ERROLDAREN PORTZENTAIA	BOTOEN PORTZENTAIA
AMAIUR	1.872	% 39,92	% 59,47
EAJ-PNV	542	% 11,56	% 17,22
PSE-EE	388	% 8,27	% 12,33
PP	195	% 4,16	% 6,19
IU-Ezker Anitza	86	% 1,83	% 2,73
EQUO	29	% 0,62	% 0,92
UPYD	22	% 0,47	% 0,70
BESTEAK	14	% 0,30	% 0,44

HAUTES-MAHAIA	ERROLDA	BOTOAK	NULOAK	BALEKOAK	ZURIAK	ALDERDIEI EMANDAKOAK	ABSTENTZIOA
1 A - KAXKOA	866	611	6	605	4	601	255 %29,45
1 B - KAXKOA	808	562	1	561	5	556	246 %30,45
2 A - URDAIAGA, SANTUENEA	538	336	4	332	5	327	202 %37,55
2 B - AGINAGA	376	246	2	244	0	244	130 %34,57
3 A - KALEZAR, TXIKIERDI	579	384	2	382	2	380	195 %33,68
3 B - KALEZAR, TXIKIERDI	574	390	5	385	4	381	184 %32,06
3 C - ZUBIETA	340	239	0	239	3	236	101 %29,71
4 - KASKOA	608	428	0	428	5	423	180 %29,61
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.689</b>	<b>3.196</b>	<b>20</b>	<b>3.176</b>	<b>28</b>	<b>3.148</b>	<b>1.493 %31,84</b>

## AGINAGA

M<sup>A</sup> ANGELES ARRUTI

## Ibilaldia eta kinten bilkura



**U**rtero bezala, urriaren 23an izan genuen Gipuzkoako Jubilatuen elkarteak antolatzen duen ibilaldia, oraingoan Lasarte-Orian ospatu dena. Egun pasara bertaratu ginenon artean, giroa ezin hobea izan genuen eta buelta oso

polita.

Seiehun bat lagun elkartu ginen, zazpi edo zortzi kilometro egitera. Ibilaldia bukatu ondoren, Michelingo Kiroldegian bazkaldu genuen. Gero, dantza saioa. Amaieran, denok gustura datorren urtera arte agurtu ginen, hurrengoan Tolosara joateko.

Bestalde, 1951. urtean jaiotako 19 emakumeak Errioxara egun pasa egin genuen. Hirurogei urte ospatzeko gaia iruditzen zitzaigun eta benetan egun ederra hemengo eguraldia ikusirik, abiatzeko garaira arte ez genuen euririk izan.

Museo polita ikusi, ardo pixka bat edan, bazkaldu eta kantatu, zer gehiago eskatu.

Hemen ondoan duzue oroimenerako argazkia. Pakita falta da bertan, bera baitzen argazkilaria, baina badu beste argazki oso polita ere. Agur eta urte berri on guztioi!



## SANTUENEA

JON ETXABE

## Gauzak bere onera itzultzen



**Z**einen bitxia den ura, ezta? Hain da askea, arina... Dituen ezaugarri guztiak zenbaezinak dira: bero espezifiko handia, kohesioa, konduktibitatea, irakite puntu altua, polaritatea, gainazal tetsioa, kapilaritatea...

Hauek guztiak ezezagunak egingo zaizkizue gehienei, baina bada bat, guztiok ikusi ahal izan duguna: ura oso suntsigarria izan daiteke.

Bide luzea geratzen da oraindik berreskuratze lanean, baina pixkanaka pixkanaka, ekaitzaren ondorengo ura bezalaxe, gauzak bere onera itzultzen ari dira.

Auzoa ez da etsipenean ito eta irrifarreak loratu dira baratze lokaztuetan. Ekitaldi eta goizaldera arte luzaturiko kontzertuei esker Santuenea bizirik dagoela ikus dezakegu.

Azaroaren 20ko hauteskunde eguna igaro berri dugularik ere, geure auzunea mugimenduan dagoela nabari daiteke.

Gogoiari utsiz erakusten ari gara, ura bezain konstanteak garela eta edozein egoeretara molda gaitzkeela, gure auzo txikia den ibaia lasaitasunerantz bideratuz.

## KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Hauteskunde egunean



**K**risia gora eta krisia behera (gehiago behera!) entzun da sekula ez bezala agintarigaien ahotatik. Zer egingo duzu zuk agintari zarenean, krisiari aurre egiteko? Krisiari erreferentzia egiten zitzaionean, krisi ekonomikoari baino ez zitzaion egiten

(duen garrantzia kendu gabe). Baina badago beste krisi mota bat, ahaztu behar ez dena eta ekonomikoaz gain, beste krisi mota batzuetan ere eragin zuzena duena: zentzuaren krisia. Zentzu pixka batekin jokatzaren krisia, alegia. Diruak dirua egiten duela eta burua galduta ibili gara. Eta orain, dirua ere bai! Ez dugu, futbol-esaerak dioen moduan, "cantera" landu, "cartera" baizik. Eta halaxe joan zaigu, pentsatu gabe, herrialde baten harrobia hezkuntza dela. Hezkuntzan inbertitu behar da. Baina hitzak dioten bezala, inbertsioak itxarotea dakar, eta gaur egun...hankak ez, hegalak izan nahi ditugu. Horregatik eta krisi mota guztiei aurre egiteko tresna denez hezkuntza, txoriburu horien guztien eskutatik at egon behar luke. Lehen Hezkuntzako semeari matematiketan lagundu ezin dion aitak ezin du presidente izan, eta gutxiago herriaren, gizartearen hezkuntza behar bezala aurrera eramateko gai izan. Egunen baten, adituen buruetan egongo den itxaropenez...

## KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Zaharrak berri



**T**eknologia berrien aroan murgilduak bagaude ere, aitortu beharrean gaude oraindik ez dela behar bezalako teknologiarik sortu naturaren haserrealdiak bete-betean eta zehaztasun osoz aurreikusiko dituen.

Hori izan da hain zuzen ere azaroko lehen asteburuan izan genituen azken euriteek uholdeak sortarazi eta jendea ezustean harrapatu izanaren ondorioa.

Horren harira, herriak bultzaturiko ekimena ezin aipatzeke utzi, orain urte batzuk hain ohikoa zen auzolana.

Auzolana ohiko lanetarako, auzolana ezbeharretarako, auzolana herri-lanetarako... Azken batean, auzolana ez ezik, elkarlana.

Eta elkarlana da hain zuzen ere gure gizartean pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen ari dena; aho batez indarkeriari ez esaterakoan, gehiengoak bat egin eta azken hauteskundeetan herria bat dela azaltzerakoan.

Zerbaitek indartu badezake herria, hori elkartasuna da. Eta hori da hain zuzen ere gure aurrekoek behin eta berriz erakutsi eta irakatsitakoa.



Zehaztasunez ez bada ere sumatu daiteke datozen garaiak ez direla errazak izango.

Utzi dezagun horretan. Ba, horri aurre egiteko, bota dezagun begirada atzera, ez atzera egiteko, gure arbasoen irakatsiei so egin eta bidean aurrera egiteko baizik.

Zaharrak berri, pauso berri!!! Ondo izan.

## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

## 1,2,3,4,5,6,7... Amaiur!



**R**ing! Iratzargailua jo eta jo dabil. Aiba! Igandea da eta 7:15. Mendira? Bizikletan ibiltzera? Perretxikutara Andatzara? Lanera? Dutzatu, gosalduta eta kalera. Ikastolarantz. Aspaldi bukatu nituen nik Udarregiko garaiak. Metalezko atea gurutzatu

eta erdiko aretora: zenbat oroitzen. Zenbat dantza. Zenbat antzerki. Inateurietako show haiek! Hor nengoen ni, auzoko beste askorekin igande batean, ikastolan. Hor nengoen erdi lo, mahaiko lehendakaria nintzen (a ze ohorea) zer zertokidan gainera jakin gabe. Eguna azkar pasatu zen, NAN zenbakiak gora, erregelarekin markatzen eta sobreak gora eta behera, jendearen algara eta "Tokau zaik" behin eta berriz aditzen. Errealak 0-0, partida txarra, eta eskerrik asko, puntu bat. Tik tak, zortziak noiz etorriko zain, tik tak. Heldu da. Atea itxi, kutzak ireki eta kontaketa hasi da. Azkenean etxean, telebista piztu eta, ez da amets gaiztoa bukatzen, gutxirako dago ordea.

Bukatu dira eta ditzosozko hauteskundeak, hasi da garai berria. 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7. Emaizta zoragarria. Zorionak Amaiur eta animo hurrengo lau urtetarako, ez da lan erraza izango Madrilgo oihanetan eta! P.D. hurrengo hauteskundetarako musika eta taberna txiki bat?

## ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Irubietta, independente

**B**erri ugari gure etxealdean (auzo izateko ere ez gara osatzen). Baga: JJ ari da pentsatzen Londreseko olinpiadetara aurkeztea. Modalitatea: Txalupako erreskatea. Alperrik da hari kontu hori burutik kentzen saiatzea. Onartu digun arrazoi bakarra arraunen ordeztuak erabiltzea gaizki ikusita dagoela. Horretaz aparte, uholde gehiago beharko lituzke entrenatzeko. Biga: Irubietako errepublika eta Zuhaiztiko erresuma ituna sinatzekoan daude: Aurten ez diete tirorik botako zikoinei, beti ere, besteek ere beren esparruan botatzen ez badiete. Badakizue, ezingo lukete eraman besteek 4-5 kiloko oilagorra harrapatu izana. Ituna oraindik ez dute sinatu Alkortaenea-Etxeberri Federaziokoek. Hausnarrean omen dabilta. Higa: Nazio Batuen Antolaketari (Zubietako Herri Batzarrari) hauxe eskatzekoan gara: errepideraino bide nagusia konpontzeko lain ez badute, gutxienez Gabonetako argi kaiolak jar ditzatela zuhaitzetan, plazan daudenen antzekoak, gu ez baikara gutxiago. Hemen ez jartzeko arrazoiak komertziorik ez egotea bada, ez daitezela kezkatu: semea prest dago kioskoa jartzeko. Bertan babarrunak, kiwiak, uholdeak ekarritako sagarrak eta Itayako bertso afarirako txartelak saltzeko irrikitan dago.



# Ziortzak ikasturtea abiatu du, gazte belaunaldi berriekin indartuta

**D**BH 2, 3 eta 4 mailetako ikasleei zuzendutako eskaintza prest dutela, ikasturtea martxan dute jada Ziortza Gazte Elkartekoek. Hilean behin, hainbat ekintzen bidez, aisialdiko jolasetan parte hartu edota gazteen intereseko gaiak ahotan hartuko dituzte. Ondo pasatzeaz ahaztu gabe. 13-16 urte arteko gazteei bilgunera gerturatzeko gonbita luzatzen dute begiraleek.

**NOAUA!** Zer moduzkoa izan da ikasturte hasiera?

**Irati Portu.** Egia esan, hasten ari gara. Aurten hiru talde izango ditugu, DBH 2,3 eta 4 mailetakoak. DBH-2ko taldearekin ikusi egin behar da oraindik jende gehiago etorriko den edo ez. Baina esperantzarekin, ilusionatuta gaude, hasiera ona izan da. Hilabete behin elkartzen gara eta azaltzen direnekin egutegia adosten dugu.

**N.** Urteotan, Ziortzako dinamikan zer nolako aldaketak egon dira?

**I. P.** Lehen astero izaten ziren saioak eta dinamika beste bat izaten zen. Begirale eta gazte asko zeuden eta oso talde indartsua zen. Gero geldialdia egon zen, pare bat urtez ez zen ezer egon. Bilgunean egondako beste begirale batzuk eta bultzatuta, kanpaldi batekin belaunaldi berri batzuk hasi ginen Ziortzan. Urtean zeharreko saioak beranduago hasi ziren. Orain biltzeko maiztasuna baxuagoa da, une honetan gauden begiraleekin gehiago ematera ez baikara iristen. Halere, horrek ez du esan nahi beti hala izango denik, oraingoz bai ordea.

**N.** Etenaldi haren ostetik gaur arte bilguneak izan duen ibilbidearekin gustura zaudete ezta?

**I. P.** Etenaldi osteko lehen kanpamentu hura esperimentu modukoa izan zen, zenbat jende joango zen jakiteko. Ia talde bat osatzeko gai ginen ikusteko. Ondo gogoratzen banaiz, LH 3 edo 5etik hasi eta orain begirale sartu zaizkigunak gazte zaharrenak ziren. Irudikatu zer adin tarte zabaleko jendea biltzen saiatu ginen. 28



ZIORTZAKO HAINBAT KIDE, UDAKO KANPALDIKO IRUDIAN.

gazte edo elkartu genituen. Hortik hasita, bost urteren tartean, askoz begirale gehiago gaude, gazteak zirenak orain begirale daude. Talde gehiago osatu ditugu, Ziortzak jada martxa hartua du.

**N.** Kide izatetik begirale izateko bila-kaeran, nolako izan da egokitzapena?

**Ander Izeta.** Egia esan, aspalditik espero genuen, zain geunden momentua izan da. Etenaldiaren osteko lehenengo kanpaldira joan ginen ea ordutik urtero joateko adina bukatu arte. Orain jada, ikastaroak egin eta monitore bezala sartu gara, gustura, ilusioarekin.

## IRATI PORTU

“Aurten hiru talde izango ditugu eta hilabete behin elkartzen ari gara”

**N.** Ezagutzen ez duenarentzat, zein da Ziortzako ohiko dinamika?

**I. P.** Aisialdiaren bidez gai batzuk lantzen saiatzen gara. Jolas batzuk egiten ditugu, beti ere helbururen bat lantzeko asmoarekin; antzerkiak, ginkanak herri-rik. Talde bakoitzak bereak izaten ditu. Lehen urteko taldearekin, dinamika oso parte hartzailea izaten da. Hitz egiteko gune bat da, polita eta interesgarria.

**N.** Zeintzuk dira gazteen intereseko gaiak?

**I. P.** Taldearen arabera zehazten joaten gara. Landu egin izan ditugun gaiak; koadriletako kontuak, drogen inguruan aditu bat ekarri izan dugu hitz egitera, sexualitatea ere landu izan dugu, gazteen arteko harremanak, aurrera begirako beldurrak, ikasketekin zer egin eta hala-ko gauzak. Denetarik.

## Ondo pasatzea helburu

**N.** Zer eskaini diezaioke Ziortzak hasi berri den gazteari?

**A. I.** Herrikoak izan, denak elkar ezagutu eta adinka klasean egonda, klase kideekin beste era bateko ekintzak egitea. Klasetik kanpora ere elkartu eta ondo pasatzea. Egunerokotasun batean egingo ez zenituen gauzak lagunekin egitea. Hilean behin elkartu, barre egin eta ondo pasatzea.

**N.** Zeintzuk dira Ziortzako gazteen ekintza gogokoena?

**A. I.** Geure kasuan hitz egin egiten genuen. Oso gutxi ginen orduan, eta konfiantza handia egitea lortu genuen. Azkenean denetarik hitz egitea lortu genuen, baita politikaz ere egun batean. Orain dudatan taldearekin kanpamentuan egon naiz eta gazte hauek gehiago datoz mugitzera. Lasai hitz egiteko ere gune egokia da.

**I. P.** Afariak ere asko egin ohi ditugu. Mahai inguru horretan gustura egoten garelako. Urtean zehar hiru afari egiten ditugu, Santo Tomasak, edota Inauteriak aprobetxatuz.



## “Begirale gazteek freskotasun handia ekarri dute”

NOAUA! Luzatu gonbita belaunaldi berriei...

**Irati Portu.** Zalantzarekin ez geratzeko. Etor daitezela, gustuko duten edo ez ikusi eta erabaki dezatela jarraitu edo ez.

**Ander Izeta.** Ziortza ez da talde itxi bat. Lehenengo egunean etortzen den jendearekin taldea ez da ixten. Hurrengo saioetara etortzen diren gazteak ere ongi etorriak izango dira. DBH3 eta 4an sartua dute Ziortzako esentzia hori. DBH 2koak animatuko nituzke, etortzeko eta lotsa gabe ikusteko zer den. Etor daitezela eta ondo pasako dutela ikusiko dute. Kanpaldian egon direnei galdetzeko bestela, nolako esperientzia bizi izan duten.

N. Iaz, bilgunearen 25. urteurrena ospatu zenuten.

I. P. Horazio Argarate eta Maider Makazaga izan dira geure erreferentziak. Maider 19 urtez egon da monitore. Sorrerako garaian eta orain egon da. Hango informazio guztia pasa digu, baina berak beti esan izan digu, Ziortzan kokatuta guk geure bidea egin behar



IAZ 25 URTE BETE ZITUEN ZIORTZA GAZTE ELKARTEAK.

genuela. Taldera etorri diren begirale gazteek freskotasun handia ekarri dute, indar handia, eta aurrera begira, 25. urteurren hau inpultso bat izan da. Indartuta gaude, gainera jende berriarekin oraindik are gehiago indartuta. Orain arteko esperientziarekin eta jende berriarekin, aurrera egin goaz.

**Hitzordua, hilean behin**  
**DBH 2 asteazkenetan, 19:30etan.**  
 Hurrengo saioa, abenduaren 7an.  
**DBH 3 ostiraletan, 20:00etan.**  
 Hurrengo saioa, abenduaren 2an.  
**DBH 4 ostiraletan, 20:00etan.**  
 Hurrengo saioa, azaroaren 25ean.  
**Informazioa:** [ziortzage@gmail.com](mailto:ziortzage@gmail.com)

• PUBLIERREPORTAIA • **USURBILTZEN**

*Trekalariak*

Usurbil Zero Zabor

ALKARTASUNA

Usurbil  
OSALBUA 1982-1983

Usurbilgo Udata

## Etxean ere egin daiteke ogia

**U**rriaren 15ean, larunbatean, Usurbiltzen Basherrri taldeak Ogigintza ikastaroa antolatu zuen Agerialden, orain arte egin den laugarrena.

Juantxo Aranburu eibartarra eta Teba Gonzalez barakaldotarra etorri ziren ikastaroa ematera, aurreko hiruetan legez. Bietako bakar bat ere ez da okin profesionala, biak autodidaktak dira. Horren ondorioz, aise iristen dira ikasleengana, haiak askotan izandako zalantza berak baitituzte.

Hitzordua goizeko 9:30etan izan zen Agerialden. Bertaratutakoek beirazko bol bat, taper bat, beirazko poto txiki bat eta mantala ekarri behar zuten. Hasierako aurkezpenen ostean, bi irakasleek ama oreka zer den azaltzeari ekin zioten. Ama oreka etxean egin daitekeen legami naturala da, hau da, zerealen irinetan dauden legami eta bakterio onberak ugaltzen diren kultiboak. Ogiari zaporea, usain gozoa eta kontser-



IKASLEAK, IKASTAROA ADI-ADI JARRAITZEN.

bazio luzeagoa ematen dio, eta gainera, askoz ere asimilagarriagoa eta digerigarriagoa egiten du. Ama orearen gorabeherak azaldu eta gero, ikasleek eskuak oretan sartu eta oratzeko zenbait teknika ikasi zituzten, bai eta ogia egiteko jarraitu behar diren urratsak ere: 1. hartzidura, 2. hartzidura, tolesdurak, ebakidurak... Eskola ematen ari ziren bitarte-

an, irakasleek ekarritako ore bat ere labean sartu zuten, ikasleek urrats guztien emaitza egunean bertan ikusteko.

Etxean egin beharreko urrats guztiak azaldu ondoren, ikasle bakoitzak ore bat eraman zuen etxera ogia etxean prestatu eta dastatu ahal izateko. Tolestura, 2. hartzidura egiten utzi eta labera!

## Liztor asiarraren aurka, borroka betean

**E**goera kezkatzeko modukoa da euren esanetan, eta hurrengo hilabeteetarako aurreikuspenak ez dira hobeak. Liztor asiarra kalte ugari eragiten ari da inguruotako erleen artean. Gipuzkoako Erlezain Elkartetik neurriak hartzen hasiak dira jada. Julian Urkiolak dakartza zehaztasun gehiago, igandean ospatuko den XIII. Erle Egunaren bezperatan.

**NOAUA!** Buruhauste ugari eragiten ari da liztor asiarra. Udazkenerako ordea, kalte gehiago iragartzen zenituzten. Aurreikuspen horiek bete dira?

**Julian Urkiola.** Bete dira bai, ehun kabi edo gehiago suntsitu ditu. Orain, hostoak erortzen joan ahala geroz eta gehiago ikusiko ditugu. Horren adierazgarri, jendea deika eta deika ari dela. Udaberrian botatako kabi bakoitzarekin alderatuta, hamar aldiz kabi gehiago aterako dituzte. Santueneatik aurrera bada bat. Ia suhiltzaileekin kentzen dugun, Bizkaia aldetik eskatu digutenez, hango museo batera eman nahi baitugu.

### GUSTUKO TOKIAN

Hezetasuna eta gune menditsuak dituzte gustuko. Beraz, inguru hau baino hoberik zein?

**N.** Inguruotan badira kabi gehiago?

**J. U.** Bai, Ibarrola ondoko zuhaitz batean. Baina hara suhiltzailerik eramateko modurik ez dago. Nola egin genezakeen aztertu nahi dugu.

**N.** Erakundeetara jo duzue, konponbide bila...

**J. U.** Duela bi aste, Gasteizko Legebiltzarrean egon ginen hamar parlamentarirekin. Hiru planteamendu egin genizkien. Batetik, liztor espezie hau, espezie exotiko inbaditzaile izendatzea eskatu genien. Bigarrenik, liztor hauek ahalik eta gehien hil eta murrizteko, erakargarriren bat bilatzea. Orain arte erabili izan ditugunetara, liztorrez gain denetarik etortzen baitzen. Azkenik, halakorik aur-



GIPUZKOAKO ERLEZAIN ELKARTEKO LEHENDAKARI DA JULIAN URKIOLA.

kitzen ez den artean, erlezainen kalteak baloratu eta eurei laguntza bat ematea eskatzen genien.

### “Hau du bere etxea”

**N.** Zein da liztor honen jatorria?

**J. U.** Jatorriz asiarra da eta dirudienez, Burdeoseko portura etorri zen. Oraindik ez dakite eta ez dute jakingo ezta, nola ailegatu den. Urak pasea da eta arrastorik uzten ez dutenez... Burdeosetik kostaldean gora eta behera joan da. Frantziatik duela bost urte esa-

ten ziguten etorriko zitzaigula. Askotan esan izan ohi da, otsoa badatorrela eta kasurik ez diogu egiten, baina etortzen denean konturatzen gara. Iazko urrian ziurtatu zen, liztorra hemen dagoela.

Hainbeste izango zenik ez nuen uste. Baina Gipuzkoan zabaldu da. 70 bat kilometro konkistatu edo har ditzakete urte betean. Badirudi lehorrera ez direla sartzen. Hezetasuna eta gune menditsuak dituzte gustuko. Beraz, inguru hau baino hoberik zein? Hau du bere etxea.

### “Alergia mailaren arabera, kontuz ibili behar da; heriotza ere eragin dezake-eta”

**NOAUA!** Liztor asiarrik aurkitzen duen herritarrak, zer egin dezake?

**Julian Urkiola.** Halako arazoren bat duenak udaletxera deitu dezala. Geu artean, Aldundikoekin lanean gabiltza, habiak dauden lekuetara suhiltzaileak joan daitezten. Euren giza baliabideak eta materialak jartzea nahi genuke, dituzten lehentasunak errespetatuta. Ikastaro batzuk emango zaizkie.

**N.** Ondorioek ez dute erleengan bakarrik eragiten, baita gizakion artean ere?

**J. U.** Kontuz ibili behar da. Ziztada egindakoan, gizakiok alergikoak baldin bagara, eta alergia mailaren arabera,

kontuz ibili, heriotza eragin dezake eta. Gogorra da esatea, baina hala da.

**N.** Nola identifika genezake liztor asiar bat?

**J. U.** Bizitzeko proteinak eta bitaminak behar dituzte. Proteinak edozein zomororen bidez lortzen dituzte eta bitaminak loreetako elikagaietatik. Erlea harrapatu besterik egin behar ez duenez, erlauntza aurrean, geldirik egoten da. Erlea etortzen denean, lau hankekin heldu eta aurreko pintzarekin lepoa moztzen dio. Bertan jan edo kabira eramaten du umeek jan dezaten. Lan hori nik hitzez azaldu baino denbora gutxiagoan egiten du. Oso bizkorra da.

## Igandeko Erle Egunean, liztor asiarraren kabi bat ikusgai

NOAUA! Erle Eguna ospatuko da igandean. Liztor asiarrak eragindako egoera honek izango al du islarik igandeko hitzorduan?

**Julian Urkiola.** Iazko azaroan Martin Berasategi inguruan jaitsi genuen kabi handi bat dut etxean. Erle Egunerera eramango dut jendeak nolakoa den ikus dezan. Zuhaitzean handia ikusten da, baina bertatik bertara are handiagoa du. Ez da jaiotzen erlea bezala, hau buruz behera jaiotzen da.

**N. Erle Egunean bestelako nobederik izango al da?**

**J. U.** Erleak naturan zer egiten duen azpimarratu nahiko nuke. Ez da bakarrik gizakion sendagai bezala erabiltzen. Naturako %82a erle familiak polinizatzen du. Milatik gora espeziek. Eta %82tik %80ak erleak. Erlea desagertuko balitz beraz, polinizaziorik gabe geratuko ginatke. Ez litzateke udarik, mahats edo sagarrik izango. Einsteinek zioen moduan, erlea desagertuko balitz, lurra beste zazpi urtean desagertuko litzateke. Erleak zer egiten duen kontuan izan behar dugu. Garai batean, Euskal Herrian erleak ohorezko



ERLE EGUNA ANTOLATZEN  
ARITU OHI DA JULIAN URKIOLA.

tokia zuen. Bonbillarik ez eta, erleek egindako kandela argia izaten zen. Baita gozagarri moduan ere erleek ekotzitakoa, azukrerik ez baitzen. Zenbat erlauntza izan, baserriek estatus bat izaten zuten. Eta erleak ohorezko tokian izaten ziren, eguteran.

**N. Erle Eguna beraz, erleak merezia duen omenaldi gisa ulertu beharra dugu?**

**J. U.** Hori da Erle Eguna. Merezi du, Usurbilen oso ondo jarria dago Erle Eguna. Hitzordua Erle Laguneko kideok antolatuko dugu, baina protagonista erlea baita.

### Nola jakin zein den liztor asiarra?

#### LIZTOR EUROPARRA

- Harrapakaria, asiarra baino txikixeagoa.
- Multzo txikietan ibiltzen da.
- Kabi bakoitzean liztor asiarra baino hamar aldiz kopuru txikiagoan biltzen dira.
- Gorputz horiagoa.
- Bizkar beltza eta marroia.

#### LIZTOR ASIARRA

- Harrapakaria, europarra baino handixeagoa.
- Hezetasuna eta gune menditsuak gustuko.
- Zazpi milimetroko eztena du.
- Europarrak bezain gorputz horia ez.
- Bizkar beltza.
- Hanka muturrak horiak.
- 3 cm-tako luzera.



## Azoka, Ezti Txapelketa, Irrien Lagunak...

**U**rteko hitzordu gozoena ospatzeko egun gutxi geratzen da jada. XIII. Erle Eguna igande honetan, azaroaren 27an ospatuko da Usurbilen. Txapelketak, azoka, enkantea edota bazkaria ez dira faltako Erleen Lagunak taldekoek prestatu duten egitarauaren baitan.

Aurpegi ezagunek osaturiko epaimahaiak lore bakar eta lore anitzeko ezti pota onena zein den erabaki beharko du, eta gero enkantera atera, Euskal Herriko XIII. Ezti Txapelketaren baitan. Parte hartzaileek goizean goiz utzi beharko dituzte ezti potaok frontoian. Baita gozogintza txapelketan lehiatu nahi dutenek ere. Eztiz eginiko postre-

en txapelketa herrikoia antolatu da aurtien ere.

### Pailazoak Askatasuna plazan izango dira

Bestalde, 3-11 urte arteko haurrek eginiko marrazkiak ikusgai izango dira Askatasuna plazan. Gustukoen dituzuenak bozkatzeko aukera egongo da. Boto gehien jasotakoak saria jasoko du eta parte hartzaile bakoitzak bi ezti pota. Askatasuna plazan bertan, Irrien Lagunak izango dira, ezti yogurrarekin banatzen. Dema plaza eta frontoian, azoka izango da, besteak beste, bertsolariek girotuta. Hori guztia 11:00etan hasi eta bazkalordura arte. Ohi denez, eguna Aginaga sagardotegi-ko bazkariarekin borobilduko da.

### Azaroak 27, igandea

**9:00-10:00** Ezti eta gozogintza lehiaketetako partaideek ekarritako produktuen bilketa.

**11:00-14:00** Erakusketa, postuetako salmentak, musika, bertsolariak, txapelketak...

**13:30** Erleek ekarritako ezti, gozogintza, eta marrazki lehiaketako sari banaketa. Eta ezti sarituen enkantea.

**14:30** Bazkaria Aginaga sagardotegian. Menua: bakailu tortila, bakailu piperrekin, idi txuleta entsaladarekin, intxaurrak, gazta eta membriloa. Kafea, sagardoa, ardo gorria, ardo beltza eta txanpaina.

**Prezioa:** 24,50 euro. Txartelak aldeztatik aurretik salgai: Txiribogan, Bordatxon.

**Antolatzailea:** Erle Lagunak.

## Julian Urkiola, Babilonia baserria

# “Errioak behar duen tokia murrizten ari gara”

**E**rle Egunarekin burubelarri dabil. Baina bestelako kezkarik izan du egunotan Julian Urkiolak. Babilonia bete betean harrapatu zuen azaroaren 6an, gainezka egin zuen Oria ibaiak. Metro eta hogeit hamar barruan. Uholdeek utzitako egoeraren inguruan jardun du NOAUA!-rekin Julian Urkiolak.

**NOAUA! Nola bizi izan zenuten azaroaren 6ko egun beltz hura?**

**Julian Urkiola.** Igande goizaldeko hirurak aldera urak nahiko goran ziren. Ezin lorik egin, ez zuen atertzen, ur soinua sumatzen genuen, urak geroz eta gorago. 11:30ak aldera ura etxe barrura sartzeaz baina gelditu eta 20 cm edo gehiago behera egin zuen. Baina gero, bat batean urak gora egin zuen, ahal genuena altueran jarri eta justu atera ginen eta ez zegoen beste ezer egiterik.

### JULIAN URKIOLA

“Urak 83ko uholdeen altuera ez du harrapatu. Baina euriteok kalte gehiago eragin dute”

**N. Urak goian ordu askoz mantendu ziren, noiz eta nolakoa izan zen itzulera?**

**J. U.** Orain arte sekula ez nuen ikusi, urak gora igo eta mailari hainbeste denbora eustea. 16:30etatik 22:00ak arte ur altuerari eutsi zion. Jaisten bazen ere oso gutxi. Gauean jaitsi zenean, hemen ez zen argirik, ez zegoen ezer egiterik eta joan egin ginen.

**N. Zer nolako panorama aurkitu zenuten gero?**

**J. U.** Tristeza, uste ez den gauza asko ikusten dituzu. Lehenbizi burua

lasaitu behar da, ez da erraza izaten. Udaletxera deitu genuen, udaltzaingoarekin egon ginen, eurek mangera ekarri zuten, lokatza gogortu baino lehen ahalik eta azkarren garbitzeko. Eskerrak udaltzaingoari.

**N. Uholdeek utzitako kalteak zeintzuk izan dira zuen kasuan?**

**J. U.** Baratzak ez du ezertarako balio, berriz landu behar da. Etxe barruan, urak harrapatu dituen altzari eta elektrotresnak bota beharrak ditugu. Ez dute funtzionatzen.

**N. 83ko uholdeak baino okerragoak izan direla diote. Zuk ere hala uste duzu?**

**J. U.** Neure ustez, urak 83ko uholdeen altuera ez du harrapatu. Baina euriteok kalte gehiago eragin dute. Lokatz gehiago utzi du oraingoan. Eta paretak eta gauzak, zenbat eta denbora gehiagoz urpean egon, gehiago bustitzen dira.

Eta gero, kutsadura handia ekarri dute. Oso adierazgarria da, gizakiok zer egiten ari garen.



BABILONIA BASERRIAN URAK HARTU ZUEN ALTUERA ZEHAZTU ZIGUN JULIAN URKIOLAK.

**N. Urak jaitsi diren honetan, zer ikus dezakezu etxetik?**

**J. U.** Penagarria da ikustea zenbat plastiko dauden, zer egiten ari garen. Behar bezala jokatuko bagenu, plastikoko horiek hor ez lukete egon behar.

## “Askotan naturari ez diogu erreparatu nahi izaten”

**NOAUA! Uholdeen kalteak arintzeko zerbait egin liteke?**

**Julian Urkiola.** Gure baserri atzean metro, metro eta erdi beteta dago zuhaitzekin eta horrek libre behar luke. Zuhaitzak moztu eta bazterrak garbituko bagenitu, ura aiseago joango litzateke.

**N. Segurarekin eta gestio lanak hasiko zenituzten. Kaltetu moduan, gabeziarik antzeman duzu?**

**J. U.** Kaltea jada egina dago, atze-

ra bueltarik ez du. Etxe batean behar diren lanabesak, elektrotresnak eta, berreskuratzen ahalegintzea nahi nuke. Bestalde, industrialde eta bestelakoekin errioak behar duen tokia murrizten ari gara. Gero, noizean behin hau pasatzen da.

**N. Zer ikasia badugu beraz?**

**J. U.** Nik uste naturak asko irakasten digula. Baina askotan naturari ez diogu erreparatu nahi izaten. Aurrera besterik ez dugu begiratzen, edo norbere patrikari besterik ez.

## Mobilizazioetan jarraitzen dute Michelingo langileek

**L**an hitzarmena eskatzeko mobilizazioekin jarraitzen dute Michelingo langileek. Duela aste batzuk lantegi aurrean elkarretaratu ostean, Langileen Batzordeak lan uzteak deitu ditu asteotarako enpresak Gasteizen eta Lasarte-Orian dituen plantetan. Joan den azaroaren 16an burutu zuten ordubeteko lehen lan uztea, eta beste bi iragarriak zituzten, asteazkenerako, hilaren 23rako eta 30erako, 14:00-15:00 artean hain zuzen.

Lan hitzarmen duina eskatzen dute. Michelingo LAB sindikatutik gogorazten dutenez, "multinazional frantsesaren zuzendaritzatik egin den lan hitzarmen eskaintza lotsagarria da. Oraindik eta gehiago kontuan hartzen badugu Michelinek duen estatuko filialak azken urteetan lortu dituen irabaziak (192 milioi euro 2010. urtean eta 2011ko emaitzak hobetzeko bidean)". Euren esanetan, langileek aho batez baztertuta dute enpresako zuzendaritzatik jaso duten eskaintza. "Soldata izoztea 2011 eta 2012rako eta %1,5 igoera 2013 eta



AZAROAREN 16AN ORDUBETEKO LAN-UZTEA EGIN ZUTEN.

2014rako lanaldia dagoenean uztea. Kontratazioari aipamenik ez, arlo sozialean hobekuntza txikiren bat eta gainera sekulako indarraldi luze batekin", diote LAB sindikatutik.

### Adostasunik ez

Egoera konponbidean jartzen ez bada, Michelingo LAB sindikatutik iragarri dutenez, mobilizazio gehiago izango dira aurrerantzean ere: "LABek argi du lehenengo mobilizazio hauek egoera blokeotik ateratzeko balio ez badute, mobilizazioek askoz garrantzitsuagoak izan beharoko dutela". Langileak lan uztekin bat egitera deitzen dituzte.

### Ostiralean, elkarretaratzea

**E**gin Dezagun Bidea taldekoek hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea deitu dute, euskal preso politikoen eskubideen alde. Hitzordua ohikoa; mobilizazioa, azaroaren 25ean burutuko da Mikel Laboa plazan, iluntzeko 20:00etan hasita.

### Kantu-jira, larunbat iluntzean

**A**zaroko azken larunbarekin Abatera ospatuko da kantu-jira-ren saio berri bat. Kantu Taldekoek, azaroaren 26rako finkatu dute hitzordua, iluntzeko 19:00etan Mikel Laboa plazan. Hitzordura, kantu-liburuxka eramatea eskatu ohi dute antolatzaileek.

### Urtarrilaren 11n aztertuko da Seguroaren estradizio eskaera

**P**atxi Segurola aginagarraren estradizio eskaera aztertuko eguna finkatua du Parisek, urtarrilaren 11rako hain zuzen. Azaroaren 16an eman zioten erabakiaren berri epaitegian. Usurbileginez.com web orrialdetik berri eman dutenez, "prozedura hori burutzeko Pariseraino joan behar izan zuen, bidaia derrigortua eta kontrol-neurri zorrotzak ezarri zizkioten: joan-etorria egun berean egitera behartu zuten egun horretarako soilik balio zuen baimen idatzia emanda". Segurolak bederatz hilabete daramatza Autun herrian konfinatua, sorterritik 750 kilometrotara. Bertatik ateratzea debekatua du eta egunero bitan Jendarmerian aurkeztu behar du, goizeko 11:00tan eta arratsaldeko 17:00etan.

### Ekozinemaldia, ostegun eta ostiralean

**U**rsurbiltzen Elkartek eta Ekologistak Martxan taldeak Ekozinemaldiaren edizio berri bat antolatu dute. Sei film proiektatuko dira Sutegiko auditorioan.

#### Azaroak 24, osteguna

19:00 Filmak: "La edad de la estupidez" eta "Gure Boliviarekiko zor ekologikoa".

#### Azaroak 25, ostirala

19:00 Filmak: "Al final de la linea", "La tierra es nuestra", "Muga eta merkatuen historia", "La historia del agua embotellada".

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725



**Aliprox**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182



**txirriStra**

**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Saharako lurralde okupatuei buruzko bazkari-tertulia antolatu da

**U**surbilgo Elkartasun Taldeak, duela bi urte, Brahin Dahane gonbidatu zuen hitzaldi bat ematera. Baina egun batzuk lehenago, atxilotua izan zen eta bertan behera geratu zen ekitaldi hura. Orain, bi urte beranduago, Saharako lurralde okupatuetako giza eskubideen ekiztaile honi harrera egingo zaio Usurbilgo udaletxean. Eta ondoren, Txapeldunen egingo den bazkari-tertulia hartuko du parte. Datorren asteartean izango da, azaroaren 29an. Izena emateko epea ireki da.

MunduBat elkartearen laguntzarekin antolatu ditu ekitaldi hauek Usurbilgo Elkartasun Taldeak. NOAUA!ra igorri duten prentsa oharrean diotenez, "jakina da usurbildarrok herrien arteko elkartasunaz edota internazionalismoaz daukagun interesa. Zehazki, herritarren eta udaletxearen Mendebaldeko Sahararekiko daukagun sentsibilitatea aipagarria da".

### TXAPELDUN TABERNAN

"Asteartean izango da eta interesatuta dauden guztiei irekita dago bazkari-tertulia"

Horren isla dira urtean zehar Sahararen inguruan antolatzen diren herri-ekimen ezberdinak: "janari bilketak, hitzaldiak, karabanarako dirulaguntzak, kontzertuak... Hainbeste herritarrek Tindoufen kokatuta dauden saharar errefuxiatu kanpamentuetara egiten dituzten bidaiek, jakin-min eta elkarta-



BRAHIM DAHANERI HARRERA EGINGO ZAIO UDALETXEAN.

sun hau adierazten jarraitzen digute", diote Usurbilgo Elkartasun taldeko kideek.

Honen harira, Mendebaldeko Saharan pairatzen duten giza eskubideen zapalkuntza salatzeke orain dela urte bete mozio bat onartu egin zen eta udaletxe-ko balkoitik zintzilik dagoen Saharar bandera elkartasun honen lekukoa da.

Horregatik, "Brahim Dahane Saharako lurralde okupatutako giza eskubideen ekiztaile Usurbilen egotearen aukera zuekin konpartitu nahi dugu. Brahimek, orain dela bi urte herrira etorri behar zuen, baina tamalez egun batzuk lehenago atxilotu zuten eta bertan behera gelditu zen afari-tertulia hura", eta asteartean egingo den deialdira gonbidatu dituzte interesatuta dauden guztiak.

### Azaroak 29 asteartea

13.00ean: Harrera Usurbilgo Udaletxean. Saharako Lurralde Okupatuetako egoerako testigantza (Brahim Dahane, ASVDH-ko lehendakaria).

14.00etan: Bazkari-tertulia Txapeldun tabernan. Prezioa: 14 euro.

Izena emateko: 646 449 358.

### Uholdeetako kaltetuek laguntza eskaerak egiteko epea, abenduak 7

**A**zaroako lehen asteburuko euriteetan kaltetutako herritarrek laguntzak eskatzeko aukera dute, abenduaren 7ra arte. Usurbilgo Udaletik honako pausoak ematea aholkatzen ari dira:

-Aseguru etxeekin kontaktuan jarri.

-Aseguruaren polizak gertatutakoa kubrituko ez balu, Aseguroen Kontentsazio Partzuergora deitu edo zuzenean joan (Getaria kalea, 2. Donostia), hemen telefonoa: 943 43 37 60 edo 902 222 665 (<http://www.consorseguos.es>). Datu hauek eskatuko dizkigute: polizaren zenbakia, polizaren iraungitze-data, ordaindutako azken reziboa eta eragindako kalteen informazioa.

-Baliteke kaltetuek segururik ez izatea, hala bada, derrigorrezkoa da udaletxetik pasatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako fitxa bat osatu beharra dago, kalte eta balorazioarekin. Foru Aldundiaren helburua fitxa horien bitartez kalteen informazioa lortzea da, zer nolako laguntza sortu aztertzeke. Hemen osatu beharreko fitxa.

-Espainiako Estatuak egon diren kalteei aurre egiteko ordezko laguntzak emateko aukera jakinarazi du. Bete beharreko eskaerak usurbil.net web orrialdetik jaitsi daitezke.

-Eskabidea abenduaren 7a baino lehen aurkeztu beharko da, Donostian kokatzen den Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzan edo Usurbilgo Udalean. Ohartarazten dutenez, "dena den, laguntza hauek orokorrean aseguruak estaltzen ez dituen kalteak estalduko dituzte, etxebizitza eta bertako tresnen kasuan izan ezik (kasu honetan ondasuna aseguraturik ez izan arren, laguntza jaso daiteke)".

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSEKITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 ·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## Andatzako antolakuntza taldekoak pozik orain arte eginiko bidearekin


**G**ustura gaude, beste urtebetez segitzeko, adierazi dute, egun, Andatza Mendizale Elkartean lanean diharduten kideek. Lehen urteurrena bete dute bilgunean. Hamabi hila-beteotako balorazio baikorra egin dute, herritarrei datorren Mendi Asteako ekitaldian parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera.

2010eko azaroan errelebo aldaketa gertatu zen Andatza Mendizale Elkartean baitan. Urtebete igaro da ordutik, eta egun antolakuntza taldean dauden kideek orain arte jorratu duten 365 eguneko bidearekin pozik dira. "Oso gustura gaude. Talde bezala ere oso ondo moldatu gara. Antolatu ditugun irteerak ere oso ondo atera dira. Kanean sumatzen dugu jendea gustura dagoela", adierazi dute Andatzakoek. Euskal Herriko txoko desberdinak ezagutzeko aukera eskaini dute, hilero antolatu izan ohi dituzten irteerekin. Eta ekimen hauetatik kanpo, azken aldiaren egin dituzten deialdiek izan duten harrerarekin ere pozik dira Andatzakoak. "GPS ikastaroan plaza guztiak bete dira. Argazki lehiaketara 24 partaide aurkeztu dira", berri eman dute Andatzatik.

Argazki lehiaketako txapelkunak abenduaren 2an sarituko dituzte, azaroaren 30etik hilaren 3ra ospatuko den Mendi Astearen baitan, Sutegin antolatu duten ekitaldian. Lehiakideen argazkiak gainera Sutegiko erakusketa aretoko beirazko horman erakusgai jarriko dituzte. Sariketa egun berean, azken urte honetan Andatzakoek antolatu dituzten irteerak iruditan ikusteko aukera egongo da. Tartean, baita uztailean, Santixabelak pasa ostean Pirinioetara egindako asteburu pasakoak ere. Orduko hartan, helduak eta baita gazteak ere animatu ziren. "Autobus osoa bete genuen. Ia gazteak emanaldira etortzen diren, Pirinioetako bideoa eskainiko dugu eta. Gero luntx txiki bat dugu, argazki lehiaketako sariak eman ostean", adierazi dute Andatzatik.

### 2012an irteera gehiago

Badira Andatzakoek mendizaleei luzatu nahi dizkieten pare bat ohar. Batetik, urtarrila amaiera aldera, beranduenez otsailean burutuko dutela bilgunearen



FELIPE URIARTEK IKUS-ENTZUNEZKOA ESKAINIKO DU ABENDUAREN 1EAN.

urteko batzar orokorra. Eta bestetik, datorren astean ospatuko den Mendi Astearen baitan, mendiko aseguru berritzeko aukera izango dela. Federatu egin nahi duenak, andatza.com sartu eta handik izen emate orria deskarga dezake.

Mendi Astea igarota, urte berriari begira jarriko dira Andatzakoak. 2012an ere irteera gehiago antolatzekotan dira, eta hitzorduak finkatze lanetan murgilduta daude. Tartean, aurrean bezala, Andatza Eguna ospatu aurretik, bertako txabola inguruak txukuntzeko deialdia egitekotan dira. "Aurrekoan 6-8 lagun joan ginen eta txabola eta han zeuden aukerak konpondu, belarra moztu, adarrak kimatu... Halako lanak egin genituen. Aurrean ere beste asmo batzuk baditugu. Ia jendea animatzen den", luzatu dute gonbita Andatzakoek.

### Gazteei gonbita

Aurrera begira zerbait aldatzekotan, herritar gehiagorengana heldu nahi lukete mendizale elkartekoek, adin tarte konkretu bat dutenengana hain zuzen. "Gazteengana ez gara gehiegi iritsi", baloratu dute eta. Inork proposamenik egin, edota taldera gerturatu nahi badu, apuntatu dezala honako hitzordu hau. Andatza Mendizale Elkartekoak ostegun iluntzero biltzen dira, udaletxe ondoan duten egoitzan, DYA kokatu ohi den eraikineko beheko solairuan. Aipatu moduan, ostegun iluntzero, 19:00-20:00 artean. "Ateak irekita daude edonorentzat, ia gazteak ere animatzen diren", diote Andatzatik. Eta noiznahi, taldearen edota antolatzen dituzten ekimenen berri, andatza.com web orrialdearen bidez jaso daiteke.

### Mendi Astea, egunez egun

#### Azaroak 30, asteazkena

19:00 Bideo eta argazki emanaldia  
Joakin Pagolaren eskutik:  
Himalayako Cachemira lurraldean aurtengo irailean egindako bidai.

#### Abenduak 1, osteguna

19:00 Bideo eta argazki emanaldia  
Felipe Uriarteren eskutik: 2008ko uztailean, euskal espedizio bat Koskulak mendiaren gailurrera iritsi zen...

#### Abenduak 2, ostirala

19:00 2011. urtean Andatza Mendizale Elkartea antolatutako mendi irteeren bideo eta argazki emanaldia. Ondoren, Usurbilgo Andatza Mendizale Elkarteko 1. Argazki Lehiaketaren sari-banaketa. Amaieran luntxa eskainiko da.

#### Abenduak 3, larunbata

08:00 Usurbildik irtenda, mendi ibilaldia burutuko da.

Ondoren, bazkaria Patri jatetxean irteeran parte hartu dutenekin. Izena aldeztu aurretik eman beharko da, ikus-entzunezko saioak programatu diren egunetan, antolatzaileek Sutegin jarriko duten mahaian.

*Oharra: Sutegin burutuko diren ekitaldiak hasi aurretik, 2011ko federatu txartelak berri eta asteburuko ibilaldirako izena emateko aukera izango da.*

### Etxeko eskubalo partidak

Jubenil mutilak, Territoriala. 13.00h  
Usurbil KE - Aloña Mendi

Kadete neskak, Euskal Liga. 16.00h  
Usurbil KE - Errotabarri

Jubenil neskak, Euskal Liga. 17.30h  
Usurbil KE - Errotabarri

Senior mutilak, 2. nazionala. 19.00h  
Atez Ate Usurbil - Urduliz

### Gipuzkoako Pilota Txapelketa

Azaroak 25 ostirala, 19:30h Bergaran  
Eskuz banaka nagusiak FINALA  
Bergara-Usurbil (Ibon Aranalde).

Azaroak 27 igandea, 12:00h Hernanin  
Eskuz binaka nagusiak 1. maila FINALA  
Ilunpe-Usurbil (Xabier Santxo-Julen Urruzola)

## Abizenak euskalduntzeko kanpaina

**A**bizenak euskal grafiaz jartzeko informazioa biltzen duen eskuorriak banatu ditu Usurbilgo Udalak, herriko 18 urte arteko gazteen artean. Modu horretan, eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaldu nahi dute.

Udaletik berri eman dutenez, "adin tarte horretan berritzen du gazteak nortasun agiria, eta behin agiriari egin behar dituen, errazagoa da orduan abizenaren grafia euskaratzea. 18 urte bitarteko gazteek informazio-orria etxean jasoko dute". Abizenaren grafia aldatzeko interesa duenak, [www.euskaltzaindia.net/eoda/deiturak](http://www.euskaltzaindia.net/eoda/deiturak) helbidera jo eta bertan abizenaren grafia zuzena zein den ezagutzeko aukera du.

### Agiriak Bake Epaitegira eraman behar dira

Abizena euskarazko grafiara aldatzea oso erraza dela ohartarazten dute



UDALAK ESKUORRIAK BANATU DITU 18 URTE ARTEKO GAZTEEN ARTEAN.

Usurbilgo Udaletik. Agiriok bildu behar dira lehenik: udaletxean bertan eskura daitekeen errolda agiria, jaiotze agiri literala (Bake Epaitegikoek egiten dute. Donostian erroldatuta daudenek aldiz, hiriburuko Erregistro Zibileran joan behar dute); NANaren fotokopia eta ezkondua egon edo seme-alabarik izanez gero, familia-liburua.

### Informazio gehiago, udaleko Euskara Zerbitzuan

Agiriok eskuratu ostean, guztiak Bake Epaitegira eraman behar dira. Informazio gehiago behar duenak, udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake.

## Santo Tomas azokarako babarruna eta sagardoa ekartzeko epea zabalik

**N**OAU! Kultur Elkarrekin antolatutako ohi duen Santo Tomas eguna abenduaren 18an ospatuko da aurten, baina prestaketa lanak abian dira jada. Babarrun eta sagardo lehiaketan parte hartzeko asmoa duen herriko ekoizleontzat oharra; aipatu produktuak NOAU!ko egoitzara ekartzeko epea astelehenean, azaroaren 28an zabalduko da, abenduaren 2ra arte. Zubiaren ondoren, epea abenduaren 12tik 15era zabalduko da berriz.

### Sagardo lehiaketa

-Partaide bakoitzak 8 botila ekarri behar ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

-Gogoan izan sagardotegiak ez direla lehiaketa honetan sartuko.

-Lehen saria, 150 euro eta txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.



AURTEN, ABENDUAREN 18AN IZANGO DA SANTO TOMAS AZOKA.

### Babarrun lehiaketa

-Partehartzaile bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du. Eta babarrun kilo-gatik, 12 euro ordainduko zaio.

-Lehen saria, 150 euro eta txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.

Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 943 360 321 (NOAU!).

## Giza harremanei buruzko hitzaldia Aginagan

**N**erea Mendizabal adituak giza harremanei loturiko hitzaldia eskainiko du abenduaren 1ean, Aginagako ludotekan. "Erlazioak eraikitzen: zigor, mehatxu eta xantaiak ekiditen" izango da, arratsaldeko 17:30etan hasita jorratuko duen gaia. Ekitaldia, Antxomolantxa Elkarrekin eta San Praxku guraso elkarrekin antolatuko dute.

## Santuenea eta Artzabalgo tabernak kudeatzeko deialdia

**S**antuenea Gure Elkarrekin eta Artzabalgo Gure Pakea elkarrekin bi tabernen kudeaketa esleitzeko deialdia egin du Usurbilgo Udalak. Abenduaren 5eko eguerdiko 14:00ak arte aurkez litezke proposamenak. Hona hemen bi deialdi hauei buruzko zehaztasun gehiago.

Santueneako Gure Elkarrekin jubilatuen lokaleko tabernaren erabilpen eta kudeaketaren kontratazioa:

-Xedea: tabernaren zerbitzua eta lokalaren garbiketa aurrera eramatea.

-Burutzeko epea: urtebete, beste hiru urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, guztira, 4 urte.

Artzabalgo Gure Pakea jubilatuen lokaleko portxea, sarrera, taberna, jangela eta behe oineko zerbitzu osagarrien erabilpen eta kudeaketaren kontratazioa:

-Xedea: taberna-jantokiaren kudeaketa, zaintza, harrera eta behe oineko garbitasuna aurrera eramatea.

-Burutzeko epea: urtebete, beste hiru urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, orotara, 4 urte.

Informazio gehiago: [usurbil.net](http://usurbil.net) edo udaletxean.



## Agenda!

### Azaroak 24 osteguna

- Lupe Lekuona ipuin kontalaria 18:00etan udal liburutegian.
- Ekozinemaldia Sutegin, 19:00.

### Azaroak 25 ostirala

- Ekozinemaldia Sutegin, 19:00.

### Azaroak 26 larunbata

- Peña Zubeldiaren bazkaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak hartzeko azken eguna: azaroak 24. Txiribogan (27 euro).
- Kantu-jira 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

### Azaroak 27 igandea

- Erle Eguna.

## Goardiako farmaziak

Azaroak 24, osteguna  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 25, ostirala  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 26, larunbata  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

Azaroak 27, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

Azaroak 28, astelehena  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 29, asteartea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 30, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

Abenduak 1, osteguna  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 2, ostirala  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 3, larunbata  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 4, igandea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.  
[www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean 2011ko egutegia

# Erraustegiaren Aurkako Eguna antolatu du ITAYAk, larunbaterako

**E**rraustegiaren Aurkako Eguna antolatu dute ITAYA Gazte Asanbladakoek, larunbat honetarako. Irteera, mahai inguru edo herri-afariarekin osatuko da, lotua duten egitaraua.

11:30 Erraustegiko obretara abiatzea Mikel Laboa plazatik (bazkaria norbere kontu).

16:00 Mahai ingurua.

19:00 Kantu-jira.

21:00 Herri afaria Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi bertsoariekin. Txartelak salgai, 15 euroren truke: Txiribogan, Bordatxon, Irratin, Karobin, Jalgin eta Ilargin.

00:00 **Kontzertuak:** Urrezko Muxkerrak, Mendeku Itxua eta Itzartu.

## Abenduaren 6an, "Herria Garbi!" Eguna

Abenduaren 6rako bestalde, "Herria Garbi" eguna antolatzen ari dira gazte asanbladakoak, Usurbil Zero Zabor



BERRIZ ERE OBRAK BISITATZEKO AUKERA IZANGO DA ITAYAKOEI ESKER.

taldekoekin batera. Asmoa, Zumartegi industrialde ondoko erreka auzolanean garbitzea izango da. Herritarrak ekimenean parte hartzera deitzen dituzte. Goizeko 8:30etan jarri dute hitzordua frontoian, Zumartegi industrialdera abiatzeko. Ordu batzuek auzolanean aritu ostean, 12:30ak aldera, plazara bueltatu eta hamaiketako izango dute. Hitzordu hauei buruzko informazio gehiago helbide honetan jaso daiteke: [itaya@euskalerrria.org](mailto:itaya@euskalerrria.org)

## Odol emaleen eguna

Urtero bezala, abenduaren 8an ospatuko da Usurbilgo Odol Emaleen Eguna. 12:00etako meza eta ondoren bazkaria Antxetan. Aurretik eman behar da izena:

Patxi Arruti	615 760 458
Agustina Arizti	943 361 302
Maitte Salaberri	943 366 040
Jero Tena	943 370 723

Otorduaren prezioa 33 eurokoa da eta azaroaren bukaera baino lehen eman behar da izena.

## Pilota partidak Aginagan

Azaroak 25 ostirala 20:30h Aginagan

ESKUZ BINAKA NAGUSIAK 3. maila  
AZKEN LAURDENAK  
USURBIL 1 - EPLE 2  
(Gorka Mendizabal - Iker Zinkunegi)

PALETA GOMA NAGUSIAK 3. maila  
USURBIL-ATEGORRIETA 2  
(Josu Arruti - Xabier Murua)

ESKUZ BINAKA JUBENILAK 2. maila  
USURBIL-ALDE ZAHARRA 2  
(Iñigo Ibargoiien - Aitor Telleria)



Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
USURBILGO ATARIA

## ETXEBIZITZA

- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, faxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegaldan. 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldia eta egongela. Tlf.: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldia, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegaldan. 3 gela, sukaldia, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Etxealdian. 2 logela, sukaldia, egongela. Eguzkitsua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudun pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitek trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekaintetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegaldan lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dit kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzin jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegaldan (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldia-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegaldan. Ganbara ere badu. Aukera etxe aspian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegian ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartituan batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90 cv salgai. Aleazio lllantak 16, aurreko lainotako argiekien. Aire egokitua, ABS eta parrila. Gidari, kopilotu eta alboetako airbag-a. CD 30 MP 3 bolantean aginte-tresnarekin. Margotu berria eta neumatiko berrieekin. Gidari bakarra izan du orain arte. 88.500 km. Prezioa: 7.250 euro. 678 332 646
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegaldan, Arisitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalean. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti

garajea, ondo zaindua. 622369646.

## LANPOSTUAK

## Lan-etsaerak

- Atseдена agindu dioten ama batek ama den emakume eskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari eskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879
- Iratxo taberna pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa aforitarako garaiari egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta eskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaituz Udarregi Ikastolako idazkarizatik izena ematera.

## Lan-eskaintzak

- Umeak zainduko nituzke arratsalde, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomaturia eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska eskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar du. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularak emateko prest. Matematika, Marraketara... Tlf.: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularak, maila guztietan, 18 urterako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume eskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehentik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen dituz Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adi-

neko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.

- Lehen Hezkuntzako diplomaturak klase partikularak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo taberna lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo taberna lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteetako orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hiru metrotako bambu kañaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukaldia labareekin. Egoera onean eta oparitzeko, premiazkoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 616 260 451.
- 3 hilabeteko Seter ingeles arrazako txakur txikiak salgai Aginagan. 943361512 (eguerdiko 12:00etatik aurrera).
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurtegia erama-gaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- Kalezar auzotik txirindula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko moda-loa, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan koxka bat dauka egin berria. 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Masajak ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezu.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko erretan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaudete: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intraurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Saioa!** 6 urte bete dituzu azaroaren 18an. Ahizpa Olatz, Maialen, Uxue eta familiaren partetik zorionak!



**Zorionak Irati!** Azaroaren 20an 3 urte bete zenituen. Tartaren bat ekarriko al duzu eskolara? Zorionak Aginagako eskolako laguneren partetik.



**Zorionak Alazne eta Nikolas,** azaroaren 11n 12 urte bete zituen Alaznek. Nikolasek, berriz, 89 urte beteko ditu azaroaren 23an. Muxu bat etxekoen partez.



**Zorionak Amaia.** Larunbatean 8 urte beteko dituzu. Etxekoen partez, muxu galant bat eta egun eder bat igaro dezazula.



**Zorionak Anje!** Azaroaren 25ean 2 urte egingo dituzu. Ea bizkotxo gozo eta eder bat jaten dugun zure kontura. Txokolatezko muxu handi bat Udane eta familiaren partez.



**Zure gurasoen partetik zure 8 urtebetetzean zorionak!** oso ondo pasa zure egunean, gurasoen partez muxu handi bat

# Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak  
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sargardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **18an**  
**igande** goizez

## Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

**Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.**

## Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izen emateko datak:

**AZAROAREN 28tik ABENDUAREN 2ra**

**ABENDUAREN 12tik 15era**

(lau datak barne)

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:


- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

## Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€**
- **3. saria: 50€**

**Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.**





# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79  
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue  
Igeltseritza S.L

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu. 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A



**ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo  
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA  
ARANGUREN  
ITURGINTZA

943 83 00 72  
659 88 39 12



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Imanol  
AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirreletrizitatea@hotmail.com

**izAgirre**  
Elektrizitatea

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37  
Kale Zahar Auzoa

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**PLADUR**  
PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



MARGOAK - PAPERAK  
**FERNANDO PINTORAK**  
ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19